

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3406

*1255/2020 EBAZPENA, abuztuaren 3koa, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez baliogabetu egiten da Carmen Estefanía Bilbao andrearen izendapena, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako Erakunde Sanitario Integratuko Administrazio eta Kudeaketa zerbitzuburu lanpostuan (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta), Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 794/2020 Ebazpenean xedatutakoa betez.*

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 29ko 781/2019 Ebazpenaren bidez, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko (Gurutzeta) Administrazio eta Kudeaketa zerbitzuburuaren lanpostua (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta) izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko zuzendari gerentearen urriaren 31ko 1709/2019 Ebazpenaren bidez, Carmen Estefanía Bilbao andrea izendatu zen Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko Administrazio eta Kudeaketa Zerbitzuko buru (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta).

Izendapena EHAAan argitaratu zen 2020ko otsailaren 14an, eta haren aurka egin zen, gora jotzeko errekurtsio baten bidez.

Gora jotzeko errekurtsio hori Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 794/2020 Ebazpenaren bidez ebatzi zen. Ebazpen horretan, partzialki baietsi zen errekurtsioa, deialdian parte hartzeko baldintzetako baten idazketa osatugabea izan zelako, eta baliogabetu egin zuen apirilaren 29ko 781/2019 Ebazpena, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko zuzendari gerentearena, Administrazio eta Kudeaketa zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko deialdia egiten zuena (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta).

Ondorioz, eta aurreko ebazpenean xedatutakoa betetzeko, bidezkoa da Carmen Estefanía Bilbao andrearen zerbitzuburu izendapena baliogabetzea, Administrazio eta Kudeaketako zerbitzuburu lanpostukoa (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Carmen Estefanía Bilbao andrearen izendapena baliogabetzea, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko Administrazio eta Kudeaketa zerbitzuburu gisa (Zerbitzu Juridikoa eta Profesionalentzako Arreta), Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 794/2020 Ebazpenean xedatutakoa betez.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta EHAAn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko abuztuaren 3a.

Absentziatik, zuzendari gerentearen urtarrilaren 1eko 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseko ESIko zuzendari medikoa,  
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.